



Datuen Babeserako Politika eta Tratamendu Jardueren
Erregistroa (www.euskaldunabilbao.com/eu/ - en
argitaratzeko)

Datuak Babesteko Politika eta Tratamendu Jardueren Erregistroa

Datuak Babesteko Politika honen bidez ematen den informazio guztia aplikagarri zaio gure zerbitzuak kontaktatzen edo erabiltzen dituzten pertsonen datu pertsonalez **Euskalduna Jauregia - Palacio Euskalduna, S.A.** erakundearen egiten dugun erabilerari.

Gainera, merkataritza foru-sozietatea garenez eta betetzeko 30. artikuluan xedatzen duena 2016/679 (EB) Erregelamenduak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra; aurrerantzean, DBEO) eta 31. artikuluan xedatzen duena 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak (aurrerantzean, DBEDBLO), dokumentu honekin argitara ematen dugu gure tratamendu-jardueren erregistroa, non informazio zehatza aurkituko duzun datu pertsonalez egiten dugun tratamendu bakoitzari buruz.

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Zure datuen tratamenduaren arduraduna Euskalduna Jauregia - Palacio Euskalduna S.A. foru-merkataritza sozietatea da, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikia, eta Bilboko Biltzar Jauregia kudeatzea du helburu.

2. Nor da Datuen Babesaren ordezkaria?

Datuak Babesteko ordezkariaren eginkizunak, erantzukizunak, estatutua eta ekipoa Bizkaiko Foru Aldundian datuen babesaren eta informazioaren segurtasunaren arloan eskumena duen unitate organikoko buruzagitzak betetzen ditu, Bizkaiko Foru Aldundiaren sektore publikoko informazioaren segurtasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko politika onartzen duen uztailaren 4ko 81/2023 Foru Dekretuarekin bat etorritik, 2023ko uztailaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 130. zk.

Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, idatzi Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera, posta-helbide honetara: Kale Nagusia, 2, 6.a - 48001 Bilbo.

3. Zeintzuk dira datuak ematean dagozkizun eskubideak?

Datuen babesari buruzko araudiak zenbait eskubide ematen dizkie interesdunei beren datu pertsonalei dagokienez, berehala aditzera emango dizugunez. Eskubide horiek zuzenean balia daitezke, edo legezko edo borondatezko ordezkari baten bidez, eta dohainik.

Zure eskubideak baliaitzeko, jar zaitez harremanetan Euskalduna Jauregia - Palacio Euskalduna S.A. erakundearekin, idatzizko jakinarazpen bat bidaliz helbide honetara, NANaren edo identifikazio-agiri analogo baten fotokopiaz lagundurik:

Abandoibarra Etorbidea, 4,

48011 Bilbo

Zure eskaera jaso ondoren, ebazpen bat emango dugu. Ebazpenarekin ados ez bazaude, aldez aurreko erreklamazioa egin ahal izango duzu Datuak Babesteko ordezkariaren aurrean (Bizkaiko Foru Aldundia, Kale Nagusia, 2, 6.a – 48001 Bilbo), eta hark bere ebazpena izapidetuko du Euskalduna Jauregia - Palacio Euskalduna S.A. erakundearen barruan, edo Kontrol-agintaritza eskudunear.

Datuen titularrek eskubide hauek dituzte:

- **Sarbide-eskubidea:** datu pertsonalak ea tratatzen diren eta tratamendu horri buruzko informazio osoa jakiteko eskubidea. Konparazio batera: datu pertsonalak, kategoriak, helburuak, hartzaileak, atxikitze-epaia, jatorria, transferentziak eta komunikazioak.
- **Zuzentzeko eskubidea:** datu pertsonal okerrak zuzentzeko eta datu osatugabeak osatzeko ahalmena ematen du.
- **Ezabatzeko eskubidea:** datu pertsonalak ezabatzeko ahalmena ematen du kasu hauetan:
 - Datuak legez kontra tratatzeagatik.
 - Tratamendua edo bilketa eragin zuen helburua desagertzeagatik.
 - Kontsentimendua baliogabetzeagatik (kontsentimendua baldin bada datuen tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa).
 - Tratamenduari aurka egiteagatik.
- **Aurka egiteko eskubidea:** zure datu pertsonalen tratamenduari aurka egin ahal diozu, baldin eta botere publikoen erabilera edo tratamenduaren arduradunaren interes legitimoa bada haren legitimazio-oinarria.
- **Mugatzeko eskubidea:** datu pertsonalen tratamendua mugatzea, bi aldaeratan: datuen tratamendua eten eta datuak atxiki:
 - Tratamendua eteteko eskatzen da:
 - Datu pertsonalen zehaztasuna aurkaratzen denean, zehaztasuna egiaztatzeke epearen barruan.
 - Tratamenduari aurka egiten zaionean, arrazoi pertsonalak azalduz, aldi berean egiaztatzen delarik arduradunak interes publikoaren edo botere publikoen izenean egindako misioan legitimatuta tratatzen dituela zure datuak, eta determinatzen denean arduradunaren tratamendu hori gailentzen dela.
 - Datuak gordetzeko eskatzen da:
 - Tratamendua legez kontrakoa denean eta erabilera mugatzea eskatzen denean, eta ez ezabatzea.
 - Pertsonak erreklamazioak egiteko edo defendatzeko datuak behar dituztenean, baina aldi berean arduradunak jadanik behar ez dituztenean datu horiek tratamenduaren helburuetarako.
- **Erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izateko eskubidea:** eskubide honek bermatzen du zure gainean ez dela erabakirik hartuko datu pertsonalen tratamendu hutsean oinarrituta (profilak egitea barne), baldin eta tratamenduak ondorio juridikoak baditu pertsonarengan. Hala ere, eskubidea ez da aplikatzen kasu hauetan:
 - Beharrezkoa da interesdunaren eta tratamendu-arduradunaren artean kontratu bat egiteko edo exekutatzeko.
 - Tratamendua kontsentimenduak legitimatuta dago.

4. Zein kasutan komunikatuko ditugu zure datuak?

Ez dizkiegu zure datuak hirugarrenei inola ere komunikatuko, zuri alde aurretik jakinarazi gabe eta behar den legitimazio-oinarria ez dugularik.

Batzuetan, zerbitzu jakin batzuk ematen dizkiguten enpresak kontratatzen ditugu, eta datu pertsonak atzitzeko beharra izaten dute horretarako. Enpresa horiekin sinatu ditugun kontratuak, tratamenduaren eragileari dagozkionak, betetzen dituzte DBEOren eta DBEDBLOren xedapenak. Kontratuon bidez ziurtatzen dugu enpresa horiek kontratatutako zerbitzua emateko soilik tratatzen dituztela erabilgarri dituzten datuak, ez dituztela inoiz erabiltzen baimendu ez dizkigun helburuetarako eta ez dizkietela datu horiek hirugarren enpresa eta/edo administrazioei komunikatuko kontsentimendua eskatu gabe. Gainera, eskatzen diegu segurtasun-neurriak ezar ditzatela datu pertsonalen konfidentziasuna eta osotasuna bermatzeko. Era berean, kontratatuko baditugu, enpresa eta erakundeek bermatu behar digute indarrean dauden datuen babesari buruzko xedapenak betetzen dituztela.

Kasu bakoitzean jakinaraziko dizugunez, egoera jakin batzuetan, datuak administrazio publikoei lagatzeko lege-betebeharra dugu.

Kontrakoa adierazi ezean, ez dugu datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

5. Zer segurtasun-neurri aplikatzen ditugu datuen tratamenduan?

Ezarritako segurtasun-neurriek jarraibide hartzen dituzte bere II. eranskinean (Segurtasun-neurriak) ezartzen dituenak maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Segurtasun Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren esparruan. Era berean, segurtasun-neurri hauek aplikatzen ditugu:

- Interesdunari datuak babesteko klausula pertsonalizatuen bidez tratamenduaren xehetasunen berri ematen zaio;
- Interesdunari datuak babesteko klausula pertsonalizatuen bidez dagozkion eskubideen berri ematen zaio;
- Tratamenduaren arduradunak baimendutako langileek, euskarriak enpresaren barruan eta kanpoan segurtasun neurriekin eramaten dituzte;
- Baimenduta ez dauden pertsonak ezin izango dituzte datuak eskuratu eskuzko tratamenduan (dokumentuak);
- Tratamendu digitalean (pantailetan) baimenik ez duten pertsonak ezin dituzte datuak ikusi;
- Dokumentazioa segurtasun neurriak dituen altzari edo sail batean biltegitratzen da;
- Dokumentuak suntsitzeko protokolo bat dago;
- Euskarri digitalak suntsitzeko protokolo bat dago;
- Identifikatzeko eta autentifikatzeko prozedura bat dago.
- Babes-kopiak egiteko prozedura bat dago;
- Datuen eskuragarritasuna bermatzeko neurriak daude;
- Datuen eskuragarritasuna eta irispidea azkar lehengoratzeko neurriak daude;
- Segurtasun-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeke, ebaluatzeke eta baloratzeko prozesuak ezartzen dira.

Tratamendu Jardueren Erregistroa eta informazio gehigarria

Atal honetan, informazio zehatza jasotzen dugu Euskalduna Jauregia - Palacio Euskalduna, S.A.erakundearen egiten dugun tratamendu-jarduera bakoitzari buruz.

1. Bezeroen kudeaketa

1.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Gure bezeroen administrazio, kontabilitate eta zerga kudeaketa egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

1.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

1.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak kontratu-tresna juridikoak garatzeko (DBEOren 6.1.b. artikulua) eta legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena;
- 2/2005 Foru araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa;
- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena;
- 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.

1.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;
- Ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruetakoa;
- Ondasun eta zerbitzuen transakzioak.

Datu horien titularrak gure bezeroenak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

1.5. Zein hartzailei ja kinaraziko dizkiogu zure datuak?

Jarraian adierazten ditugun datuen komunikazioak lehen aipatutako legeetako legezko betebeharrak betetzeko legitimazioa dute.

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Finantza- eta aurrezki- erakundeei;
- Zerga arloan eskumenak dituzten administrazio publikoei.

2. Kontratisten/azpikontratisten kudeaketa

2.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Kontratutako eta azpikontratutako enpresekiko legezko betebeharrak betetzeko kudeaketa administratiboa eta operatiboa egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

2.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

2.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak kontratu-tresna juridikoak garatzeko (DBEOren 6.1.b. artikulua) eta legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena;
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa;
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena;
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei, tributuei eta kontratazio publikoari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorren testu bategina onartzen duena;
- 1/1988 Legea, otsailaren 5koa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiarena.

2.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;
- Gizarte Segurantzaren edo mutualitatearen zenbakia;
- Ezaugarri pertsonalak;
- Prestakuntza/enpleguaren xehetasunak.

Datu horien titularrak kontratatutako eta azpikontratutako enpresetako langileak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

2.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Jarraian adierazten ditugun datuen komunikazioak lehen aipatutako legeetako legezko betebeharrak betetzeko legitimazioa dute.

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateei;
- Zerga arloan eskumenak dituzten administrazio publikoei;
- Kanpoko prebentzio zerbitzuei (osasunaren zaintza);
- Autonomia-erkidegoetako Kontuen Auzitegia eta kanpo-kontrolako organoei.

3. Giza baliabideen kudeaketa

3.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Langileekiko lan-harremana kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

3.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

3.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak kontratu-tresna juridikoak garatzeko (DBEOren 6.1.b. artikulua) eta legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena;
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa;
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena;
- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena;
- 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa;
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa betebeharrak betetzea eta lan zuzenbidearen eta gizarte segurantzaren eta babesaren esparruan eskubide espezifikoak baliatzea (DBEOren 9.2.b.) da.

3.4. *Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;
- Gizarte Segurantzaren/Mutualitatearen zenbakia;
- Ezaugarri pertsonalak;
- Inguruabar sozialak;
- Ekonomikoak eta aseguru finantzaketa;
- Prestakuntza eta enpleguari buruzko xehetasunak;
- Datuen kategoria bereziak: osasun-datuak, afiliazio sindikala.

Datu horien titularrak gure enplegatuenak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

3.5. *Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?*

Jarraian adierazten ditugun datuen komunikazioak lehen aipatutako legeetako legezko betebeharrak betetzeko legitimazioa dute.

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateei;
- Kanpoko prebentzio zerbitzuei (osasunaren zaintza);
- Finantza- eta aurrezki- erakundeei;
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeari (BGAE).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari;
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari;
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari;
- Zergen eta gizarte segurantzaren arloetako administrazio publiko eskudunei;
- Aseguru-artekaritzei.

4. *Kontseiluaren kudeaketa*

4.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Administrazio-kudeaketa eta Kontseiluko kideekiko legezko betebeharrak betetzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

4.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

4.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak Euskaldunari aplikatzen zaizkion legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena.

4.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;
- Enpleguari buruzko xehetasunak.

Datu horien titularrak Administrazio Kontseiluko kideak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

4.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Datu pertsonalak jakinarazten dizkiegu arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei, lehen aipatutako legeek ezartzen dizkiguten legezko betebeharrak betetzeko, bai eta notariotzei ere.

5. Lan-poltsaren kudeaketa

5.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Hautagaiak hautatzeko prozesuak kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

5.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

5.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Interesdunak eskatutako kontratu aurreko neurriak aplikatzea (DBEO 6.1.b.), eta interesdunaren adostasuna (DBEO 6.1.a.) datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa da. Emandako baimena edozein unetan kendu ahal izango du, Euskaldunarekin harremanetan jarritz.

5.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;
- Ezaugarri pertsonalak;
- Inguruabar sozialak;
- Prestakuntza eta enpleguari buruzko xehetasunak.

Datu horien titularrak hautaketa-prozesuetako hautagaiak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

5.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Hautaketa-prozesuen kudeaketan tratatutako datuak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko zaizkio.

6. Alokairuaren kudeaketa, espazioen lagapena eta ekitaldien garapena

6.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Alokairuaren eta espazioak lagatzearen kudeaketa administratiboa eta operatiboa egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

6.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

6.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak kontratu-tresna juridikoak garatzeko (DBEOren 6.1.b. artikulua) eta legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena;
- 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena;
- 29/1994 Legea, azaroaren 24koa, Hiri Errentamenduei buruzkoa.

6.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;
- Ekonomikoak eta aseguruak finantzatzekoak.

Datu horien titularrak gure bezeroak eta erabiltzaileak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

6.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Jarraian adierazten ditugun datuen komunikazioak lehen aipatutako legeetako legezko betebeharrak betetzeko legitimazioa dute.

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Finantza- eta aurrezki- erakundeei;
- Zerga arloan eskumenak dituzten administrazio publikoei.

7. Sarrerren salmentaren kudeaketa

7.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Euskalduna Jauregiaren webgunearen bidez egindako sarrerren salmentaren kudeaketa administratiboa eta operatiboa egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

7.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

7.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak kontratu-tresna juridikoak garatzeko (DBEOren 6.1.b. artikulua) eta legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c artikulua) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, Informazio Gizartearen Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoa buruzkoa;
- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena;
- 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.

7.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;
- Datu ekonomikoak.

Datu horien titularrak interesdunak edo haien legezko ordezkariak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

7.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Jarraian adierazten ditugun datuen komunikazioak lehen aipatutako legeetako legezko betebeharrak betetzeko legitimazioa dute.

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Finantza- eta aurrezki- erakundeei;
- Zerga arloan eskumenak dituzten administrazio publikoei.

8. Zabalkunde-jarduerak

8.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Erakundearen jardueren berri ematea, eta Euskalduna erakundeak antolatutako ekitaldiei buruzko buletinak eta publizitatea bidaltzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

8.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

8.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Interesdunaren adostasuna (DBEO 6.1.a.) datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa da. Emandako baimena edozein unetan kendu ahal izango du, Euskaldunarekin harremanetan jarritz.

8.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;

Datu horien titularrak interesdunak edo haien legezko ordezkariak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

8.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Prentsa eta komunikabideei;
- Bizkaiko Foru Aldundiari.

9. *Kontaktuen kudeaketa*

9.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Euskaldunako harreman instituzionalak kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

9.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

9.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak tratamenduaren arduradunak bilatzen dituen interes legitimoak asetzeko (DBEO 6.1.f) tratatzen ditugu, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 19.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

9.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;

Datu horien titularrak erakundeetako harremanetarako pertsonak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

9.5. Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

10. *Bideozaintza eta sarbideen kontrola*

10.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Instalazioetarako sarbidea kontrolatzeko eta segurtasun-arrazoiengatik bideozaintza egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

10.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bideozaintzarako bildutako datuak hilabeteko epean gordeko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren 22.3 artikulua arabera.

Eraikinerako sarbideak kontrolatzeko helburuarekin bildutako datuak behar den epean gordeko dira, bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko.

10.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko (DBEOaren 6.1.e. artikulua) eta Euskaldunari aplikatu dakizkiokkeen legeko betebeharrak betetzeko (DBEO 6.1.c) tratatzen ditugu

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 5/2014 Legea, apirilaren 4koa, Segurtasun Pribatuari buruzkoa;

- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena (21. artikulua);
- 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena;
- 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa (65. artikulua).

10.4. *Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;

Datu horien titularrak Euskaldunako langileak eta gure instalazioetara sartzen direnak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

10.5. *Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?*

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Estatuko segurtasun indarrei;
- Organo judizialei.

11. *Espediente juridikoen kudeaketa*

11.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Enpresak irekitako espediente juridikoak kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

11.2. *Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?*

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

11.3. *Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?*

Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzea (DBEO 6.1. b) datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa da

11.4. *Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak;
- Ezaugarri pertsonalak;
- Inguruabar sozialak;
- Ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruetoakoak.

Datu horien titularrak gure bezeroak, erabiltzaileak, hornitzaileak eta langileak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

11.5. *Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?*

Datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Erregistro publikoei;
- Epaitegiei eta auzitegiei;

- Notariotzei eta prokuradoreei.

12. Posta sarrerek eta irteerak, eta telefono bidezko arreta

12.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Dokumentuen sarreren eta irteeren erregistroa eta jarraipena egiteko eta erakundearekin harremanetan jartzen diren pertsonentzako telefono bidezko arreta emateko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

12.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

12.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena ezarritako legezko betebeharrak betetzeko (DBEO 6.1.c) tratatzen ditugu

12.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikatzaileak eta kontaktukoak

Datu horien titularrak interesdunak berak edo bere legezko ordezkariak dira, Euskalduna-n dokumentazioa aurkezten duten pertsonetakoak. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

12.5. Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

13. Kexen, iradokizunen eta erreklamazioen kudeaketa

13.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Euskaldunako jarduketarekin lotuta aurkeztutako iradokizunak, kexak, erreklamazioak eta kontsultak erregistratzeko, izapidetzeko eta kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

13.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

13.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena;
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena;
- 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, Informazioaren Gizartearen Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoari buruzkoa (5. xedapen gehigarria);
- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena (12.2.o. artikulua);
- 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena (31.1.c. artikulua).

13.4. *Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak.

Datu horien titularrak pertsona interesduna bera edo haren legezko ordezkaria dira, kexa, iradokizun, erreklamazio eta/edo kontsulta bat aurkezten duten pertsonena. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

13.5. *Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?*

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

14. Abonatuuen erregistroa

14.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Abonatuuen erregistro informatikoa kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

14.2. *Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?*

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

14.3. *Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?*

Zure datu pertsonalak interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko (DBEO 6.1. b.) eta legezko betebeharrak betetzeko (DBEO 6.1.c) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena;
- 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena (48. artikulua).

14.4. *Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?*

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak;
- Beste batzuk: ordaindutako herriaren banakako identifikazioa, zenbakia eta errenkada adierazita.

Datu horien titularrak abonatuak berak edo Euskaldunako abonatuuen titularren legezko ordezkariak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

14.5. *Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?*

Instalazioak ikuskatzeko eta ikuskizunak eta jolas-jarduerak kontrolatzeko eskumena duten organoei datuak jakinarazten dizkiegu.

15. Kontaktuen kudeaketa DanonArtean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Foru Erakundeen arteko harreman-eremu korporatiboetan

15.1. *Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?*

Zure datu pertsonalak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Foru Erakundeen arteko harreman-eremu korporatiboetan jarduketak egiteko harremanak kudeatzeko.

15.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

15.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak honako lege hauek ezartzen dizkiguten legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1.c.) tratatzen ditugu:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei, tributuei eta kontratazio publikoari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onartzen duena.
- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzkoa.

15.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak.
- Enplegua eta prestakuntza.

Datu horien titularrak erakundeetako harremanetarako pertsonak, erabiltzaileak eta hornitzaileak dira. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

15.5. Zein hartzailei komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Datuak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko zaizkie.

16. Compliance: datu pertsonalen tratamendua, salaketak eta/edo kontsultak aurkeztu eta izapidetzeagatik (ikerketa eta ebazpena)

16.1. Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Compliance: Datu pertsonalen tratamendua salaketak eta/edo kontsultak aurkeztu eta izapidetzeagatik (ikerketa eta ebazpena). Bereziki, etika- eta jokabide-kodea, jazarpen-protokoloa edo indarrean dauden beste protokolo edo araudi batzuk ez betetzeari buruzkoak.

16.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datuak bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko ditugu zure datuak.

Emitza negatiboa izan duten ikerketen kasuan eta salaketa ez onartzearen eta artxibatzearen kasuan, datu pertsonalak gordetzeko epea hiru hilabetekoa izango da.

16.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak lege-eginbeharrak betetzeko tratatzen ditugu (DBEOren 6.1.c. art.):

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa;
- Ereku bakoitzean aplikatu beharreko araudi sektoriala.

16.4. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak.
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak.

- Enpleguari buruzko xehetasunak.
- Kondena eta arau-hauste penalei buruzkoak.

Datu horien titularrak enplegatuak dira, bai salatzailerak/kaltetuak, bai lekukoak eta salatuak. Datu horiek interesdunengandik lortzen ditugu.

16.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Hala badagokio, datuak honako hauei jakinarazi ahal izango zaizkie:

- Salaketa ikertzeko eta kudeatzeko eskumena duen organoari edo agintaritzari.
- Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei.
- Organo judizialei.

17. Euskalduna Jauregia, S.A. erakundearen arau-hausteei eta ez-betetzei buruzko barneko informazio-sistema

17.1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Zure datuen tratamenduaren arduraduna Euskalduna Jauregia, S.A. erakundearen Administrazio Kontseilua, Administrazio-Organogisa sistema ezartzeko arduraduna izanda.

Funtzioen esleipena: Barneko informazio-sistemaren Organo arduraduna, kide anitzeko organogisa Sistema kudeatzearen eta datuak babesteko eskubideen eskaerak kudeatu eta ebaztearen Arduraduna, eta Kontrol Agintaritzaren aurrean segurtasun-arrakalen edota salaketen aurrean alegazioak formulatu.

17.2. Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Euskalduna Jauregia, S.A. erakundearen barneko informazio-sistema kudeatzeko, arau-hauste penal edo administratibo larri edo oso larriari edo, hala badagokio, beste arau-urraketen edo jokabide-kodeen ez-betetzei buruzko informazioa komunikatzeko eta ikertzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

17.3. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Arau orokorra: datu pertsonalak 3 edo 6 hilabeteko epean tratatzea bideratutako prozeduraren konplexutasunaren arabera, prozedura izapidetzeko eta anonimizazioa edo blokeoaren aplikazioa, beharrezkoak diren eta, hala badagokio, aplikatzen diren segurtasun-neurri teknikoak, konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzeko.

Hiru hilabeteko epean datuak ezabatzea ikerketa hasten ez bada.

Inola ere ezingo dira datuak gorde hamar urte baino gehiagoko epean.

17.4. Zein da datuak tratatzeko zilegitasun-oinarria?

Zure datu pertsonalak lege-eginbeharrak betetzeko tratatzen ditugu (DBEOren 6.1.c. art.):

- 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa.
- Eremu bakoitzean aplikatu beharreko araudi sektoriala.

Kategoria bereziko datu pertsonalak: Tratamendua beharrezkoa bada funtsezko interes publiko berezi bati buruzko arrazoiak direla medio, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean oinarri

hartuta, proportzionala izan behar du bilatzen den helburuarekiko; datu-babeserako eskubidearen muina errespetatu behar du, eta neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar ditu interesdunaren funtsezko interesak eta eskubideak babesteko (DBEOren 9.2.g. art.).

17.5. Interesdunen zer datu eta kategoria tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Hala badagokio, datu-kategoria hauek tratatuko ditugu:

- Anonimotasuna (informazioa komunikatzeko eta kudeatzeko aukera identifikazio pertsonalik gabe) edo, hala badagokio, identifikazio- eta kontaktu-datuak, enpleguaren xehetasunak eta jakinarazitako beste datu pertsonal batzuk edo informatzailearen edo kaltetutako pertsonen ikerketaren ondoriozkoak.
- Datuen kategoria bereziak, modu murriztailean eta behar-beharrezkoak diren kasuetan.

Datu horien titularrak informatzaileak edo kaltetutako pertsonak dira. Datu horiek informatzailearengandik, informatzailea babesteko agintaritza independentetik edo beste organo, agintaritza edo kanpoko pertsona batzuetatik lortzen ditugu.

17.6. Zein hartzailei komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Hala badagokio, datuak honako hauei jakinarazi ahal izango zaizkie:

- Ministerio Fiskala edo Europako Fiskaltza, delituak komunikatzeko.
- Hirugarren pertsonak neurri zuzentzaileak hartzeko edo zehapen- edo zigor-prozedurak izapidetzeko, hala badagokio.
- Erakunde edo Agintaritza Independente eskuduna, beste erakunde behartu bati buruzko informaziorako.